Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy Film Festival

FILM LABURRAK INSKRIBATZEKO

Film laburren nazioarteko lehiaketan 30 minutu edo gutxiago irauten duen edozein film labur inskribatu daiteke. Espainian produzitutakoa bada, Espainiako Film Labur Onenaren Sarira ere aurkeztu daiteke. Horretarako, **NAHITAEZKOA DA FILM LABURRA WEBGUNE HONETAN ERREGISTRATZEA** WWW.SHORTFILMDEPOT.COM**, ETA BERTAN *DONOSTIAKO FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEAN* IZEN EMATEA**.

Mundu osoko zinemaldi ugaritan film laburrak inskribatzeko aukera ematen duen baliabidea da Short Film Depot, erraza eta azkarra izateaz gainera, filma inskribatu nahi den bakoitzean ez baita formulario bat bete behar.

Short Film Depot-en inskribatuta ez dagoen film labur bat ere ez da hautaketarako kontuan hartuko. Erregistratu ondoren, webgune horretan agertzen diren jarraibideak bete behar dira filma bidali eta ikusi ahal izateko.

Inskripzioa egiteko eta kopia bidaltzeko azkeneko eguna: **2011eko ABUZTUAREN 15a.**

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy Film Festival

FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETARAKO OINARRIAK
Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea
Urriaren 29tik azaroaren 4ra
2011

OINARRIAK

Aukeraketa egiteko Batzorde arduradunak aukeratuko ditu lehiaketan parte hartuko duten film laburrak. Lehiaketara aurkezten diren film laburrek jarraian zehazten diren baldintzak errespetatu beharko dituzte:

- 2010ko urtarrilaren lehenengoa baino beranduago egin izana.
- www.shortfilmdepot.com webgunean izena emanda egotea eta han bertan Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean.
- 30 minutu baino luzeagoa ez izatea.
- Fantasiazko edo beldurrezko gai bat lantzea.
- Bai zinema bai bideo formatu onartuko dira (35mm, Betacam, HD, DCP).

Film labur bat lehiaketara aurkezteko, filmaren kopia eta izena emateko formularioa behar bezala beteta aurkeztu behar dira, 2011ko abuztuaren 15a baino lehen. Sistema honen xehetasunak agertzen dira ere Short Film Depot-en.

SARIAK

Honako sari hauek banatuko dira lehiaketan:

Ikusleen Saria Film Labur Onenari
Ikusleek ematen dute sari hau beren botoen bitartez. Film labur bakoitzak lortzen duen puntuazioa zehazteko, lortutako puntuazio guztien batura, botoa eman duen ikusle-kopuruagatik zatituko dugu.

Nazioarteko Epaimahaiaren Saria
Nazioarteko epaimahai espezializatuak, Antolakuntzak aukeratu duena, Film Labur Onena Saria banatuko du.

Europako Film Labur Onena Urrezko Méliès Sarirako hautaeta:
Nazioarteko epaimahaiak 2011ko Urrezko Méliès Sarirako hautatuko du Europako film labur onena deritzona. Saria Fantasiazko Zinemaldien Europako Federazioak ematen du.

Gazte Epaimahaiaren Saria:
Gazteen osatutako epaimahaiak Gazteen Saria emango dio Film Labur Onenari.

Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Donostia Kultura
Teatro Victoria Eugenia
Reina Regente, 8 - 4º
20003 Donostia-San Sebastián
34 943 48 11 57
cinema_cinema@donostia.org
www.sansebastianhorrorfestival.com